

## Matematika tailerrak eta bakarrizketak izango dira 2024ko BCAM Naukaseko protagonistak

*BCAM (Basque Center for Applied Mathematics) eta Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak martxoaren 14rako goiz eta arratsalderako egitaraua antolatu dute.*

Bilbon, 2024ko otsailak 27. Martxoaren 14an, Matematikaren Nazioarteko Egunean, Pi Egunaren bosgarren edizioa egingo da UPV/EHUko Bizkaia Aretoan. Beste urte batez, [BCAMek](#) -Basque Center for Applied Mathematics (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako zentroa eta hiru aldiz -2013, 2018 eta 2021ean- Estatuko Ikerketa Agentziaren Severo Ochoa Saria jaso duena) eta [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrak](#) matematika oinarri daukaten tailer eta bakarrizketez osatutako egitaraua prestatu dute.

Alde batetik, goizean zehar, **Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat** hainbat tailer egingo dira. Bosgarren eta seigarren mailako ikasleek **“Egun bat lasterketetan”** tailerraren bitartez estatistika eta probabilitatearen inguruko hainbat kontu ikasiko dute. Horretaz gain, **“Grafoak, lortu denak”** tailerrean parte hartzeko aukera ere izango dute.

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako** lehen eta bigarren mailako ikasleek, berriz, eragiketa matematikoak eginez **Math Mystery Box** escape roometik atera beharko dira, **Rubik kubo**a ebazteko eta **papiroflexia** egiten ikasteko aukera izango dute eta **Joko Erraldoiak** tailerrean pieza handiekin asmamena garatuko dute. Azkenik, DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleek **Moebius bandaren funtzionamendua** ezagutuko dute eta **“Oloidearekin bueltaka”** ezaugarri matematikoa den birarekin gauzak nola erraztu daitezkeen ikasiko dute.

Beste alde batetik, arratsaldeko 18:30ean hasita, bakarrizketa labur eta dibertigarriekin kontzeptu matematikoen inguruan ikasteko aukera egongo da. Esaterako, Raquel Villacampa Zaragozako Unibertsitateko Matematiketan doktoreak **Tamaina garrantzitsua da... edo ez** (El tamaño importa... o no) hitzaldian galdera horri planteamendu matematiko batetik erantzungo dio eta

Sara Barjas Ikerbasque ikerlariak sinbolo eta letren garrantzia azpimarratuko du **Letratakoa naiz** (Soy de Letras) bakarriketan.

Arratsaldeko saioan sarrera librea izango da edukiera bete arte. Hala ere, streaming bidez ikusteko aukera ere egongo da [EHUtb kanalaren](#) bitartez. Goizeko saioetarako eskolek [kzk.ehu@gmail.com](mailto:kzk.ehu@gmail.com) helbidera mezua bidalita izena eman beharko dute.

## Los talleres y monólogos matemáticos protagonizarán BCAM Naukas 2024

*BCAM (Basque Center for Applied Mathematics) y la Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco han organizado un programa de actividades para mañana y tarde del 14 de marzo.*

En Bilbao, a 27 de febrero de 2024. El 14 de marzo, Día Internacional de las Matemáticas, se celebrará la quinta edición del BCAM Naukas en el Bizkaia Aretoa de la UPV/EHU. Un año más, [BCAM](#) – Basque Center for Applied Mathematics (centro adscrito al Departamento de Educación del Gobierno Vasco y galardonado tres – 2013, 2018 y 2021 – con la distinción Severo Ochoa por la Agencia Estatal de Investigación - y la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) han preparado un programa de talleres y monólogos matemáticos.

Por un lado, a lo largo de la mañana se llevarán a cabo diversos talleres para alumnos de **Primaria y Secundaria**. Los alumnos de quinto y sexto curso aprenderán estadística y probabilidad a través del taller "**Un día en las carreras**" y, además, tendrán la oportunidad de participar en el taller "**Grafos, hazte con todos**".

Los alumnos de primero y segundo de Educación Secundaria Obligatoria, por su parte, deberán salir del escape room **Math Mystery Box** resolviendo operaciones matemáticas, aprenderán a resolver **el cubo de Rubik**, a hacer papiroflexia y jugar con piezas de gran tamaño en el taller **Juegos Gigante**. Por último, los alumnos de tercero y cuarto de la ESO conocerán el funcionamiento de la banda Moebius y aprenderán en el taller "**A vueltas con el Oloide**" cómo una característica matemática como el giro puede facilitar las cosas en el día a día.

Por la tarde, a partir de las 18:30, será el turno de los monólogos matemáticos que, de manera breve y divertida, profundizarán en distintos conceptos matemáticos. Por ejemplo, la doctora en Matemáticas de la Universidad de Zaragoza, Raquel Villacampa, intentará responder desde un punto de vista matemático si **El tamaño importa... o no** y la investigadora Ikerbasque, Sara Barja, hablará de la importancia matemática de las letras y símbolos en el monólogo **Soy de Letras**.

La entrada a los monólogos será libre hasta completar aforo. Sin embargo, también se podrá ver en streaming a través del [canal EHUtB](#). Para la sesión de la mañana los centros educativos deberán apuntarse enviando un mensaje a la dirección [kzk.ehu@gmail.com](mailto:kzk.ehu@gmail.com).